

# Goiena Komunikazio Taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa

**Goio Arana Arrieta, Aitor Zuberogoitia Espilla**  
Hezikom ikertaldea, Mondragon Unibertsitatea

Lan honek aztertzen du Goiena Komunikazio Taldearen kasua. Debagoienekoa bilakatu da tokiko hedabideen bigarren belaunaldiaren paradigma: erakunde bat non begi-bistakoak diren 80ko hamarkadako herri-komunikabideen nortasun-ezaugarriak eta, aldi berean, bereganatu egin dituen egungo talde multimedia berrien adierazleak. Baliatuta gaiari buruzko bibliografiaz, dokumentuen azterketaz, elkarrizketa sakonaz eta eztabaida-taldeaz, ikerlanak jorratzen du, batetik, Debagoieneko komunikazio-taldearen sendotze-ibilbidea, eta, bestetik, aztertzen ditu gutxi ikerturiko talde multimedia horren berezitasunak eta lorpenak.

**GAKO-HITZAK:** Goiena Komunikazio Taldea · Tokiko hedabideak · Euskarazko hedabideak · Komunikazio-talde multimediak.

## **Goiena Komunikazio Taldea: Case study on a local multimedia group**

The paper examines the case of the Basque local multimedia group Goiena Komunikazio Taldea and its specific characteristics. There is little research on this issue, although Goiena Komunikazio Taldea has become a paradigmatic case of multimedia newsroom. This paper draws on existing literature, documentary analysis, in-depth interviews and the data gathered through a focus group. Research has focused in the process of consolidation of this communication group of the valley of the High Deba in the Basque Country and its achievements.

**KEY WORDS:** Goiena Komunikazio Taldea · Local media · Media in Basque · Multimedia communication groups.

*Jasotze-data:* 2012-09-20. *Onartze-data:* 2012-10-23.

## 1. Sarrera

Ikerketa honen asmoa da Goiena Komunikazio Taldearen kasua aztertzea. Xedea da identifikatzea taldearen adierazgarriak eta zein ezaugarriak egin duten posible Goiena Komunikazio Taldea moduko enpresa multimedia kooperatibo euskaldun baten sorrera eta garapena.

Goiena Komunikazio Taldea 2000. urtean eratu zen Debagoienean; eskualde hori kokatuta dago Gipuzkoako hego-mendebaldean, muga eginez Bizkaia eta Arabarekin. *De facto*, bederatzi herrik osatzen dute Debagoiena<sup>1</sup>, zortzi gipuzkoarrak (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati) eta bestea arabarra (Aramaio). Guztira, eskualdeak 63.205 biztanle<sup>2</sup> ditu.

Komunikazio-taldean bildu ziren, alde batetik, Debagoieneko euskarazko tokiko hedabide ia guztiak eta horiek sostengatzen zituzten euskara-elkarteak (Idolaz, Antzuolan; Txirritola, Aramaion; AED, Arrasaten; Loramendi, Aretxabaletan; Jardun, Bergaran; Goibeko, Elgetan; Axtroki, Eskoriatzan; Laixan, Oñatin eta Gurel gurasoen elkarte, Leintz Gatzagan), eta, bestetik, ibarreko udalak. Debagoienekoa ikus daiteke herri-komunikabideen bigarren belaunaldiaren paradigma: komunikazio-talde bat da, non bista-bistakoak diren 80ko hamarkadan sortutako hasierako euskarazko tokiko «hedabide mono-medien» (Irizar, 2001:33) nortasun-ezaugarriak, baina,aldi berean, bereganatu egin dituen egungo talde multimedia berrienen adierazleak.

Aipatutako bi alde horiek oso modu desberdinetan ikertu izan dira. Hartara, azken bi hamarkadotan, ikerlan ugarik izan ditu hizpide euskarazko hasierako herri-komunikabideen gorabeherak —batez ere, aldizkariak xede hartuta—, eta, aldiz, oso ikerketa gutxi jarri du arreta Goiena Komunikazio Taldea moduko euskarazko talde multimedia berrietan<sup>3</sup>.

Euskarazko herri-aldizkariaren gainean idatzitako lehenengo lanek abiapuntu zuten Arrasaten 1988an kaleratutako *Arrasate Press* euskarazko astekari «aitzindari» (Arrieta, 2005:155). Hartara, lan haiek ikertu zituzten haren elementu bereizgarriak, egitasmoak hark ekarri zituen berrikuntzak eta herri-aldizkarietan berez-berezko bilakatuko ziren nortasun-ezaugarriak (Aranzabal, 1990, 1991, 1992, 2000; Irigoien, 1992, 1993; Mendiguren, 1991, 1992; Elkoroberezibar, 1991, 1992, 1993, Agirreazaldegia, 1993; Arana, 1998; Aranguren, 1999; Irizar, 2003).

Modu monografikoan, herri-komunikabideen (aldizkariak, irratia eta telebista) hastapena eta garapena jorratu da Arrasaten egindako hiru jardunaldien hitzaldi-

---

1. Modu ofizialean, aldiz, Gipuzkoako zortzi herrik bakarrik osatzen dute Debagoiena eskualdea. Gure ikerlanean, hala ere, Aramaio ere kontuan hartu dugu, berau Arabako herria. Izan ere, herri hori bete-betean sartzen da Goiena Komunikazio Taldearen esparruan.

2. Aramaioko 1.517 biztanleak barne. Iturria: Eustat (Euskal Estatistika Erakundea). 2011. urteko datuak, <<http://bit.ly/RJtoIC>>.

3. Lan honetan euskarazko tokiko hedabideei buruzko ikerketei erreparatu diegu, modu eksklusiboan. Izan ere, *Minority Language Media* lanean (Cormack; Hourigan, 2007) antzeman daitekeen moduan, Mendebaldeko Europako hizkuntza gutxituetako tokiko hedabideek (izan Galesko *papurau bro*-en borondate hutsezko lanak edota Kataluniako tokikoen mapa joriak) oso errealitate desberdinak (eta alderatzeko zailak) bizi dituzte.

liburuetan (AED, 1991; ARKO, 1993, 1998) eta *Jakin* aldizkariaren 1992ko 69. zenbakian. Geroago, Topagunea elkarteak antolatutako jardunaldietan (2003) Interneteko atariak gehitu zituzten tokiko hedabideen azterketara. Azkenik, euskarazko kazetaritzaren testuinguru orokorrean, tokiko hedabideek leku berezia hartu zuten Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan (Arrieta, Basterretxea, Gonzalez *et al.* (ed.), 2005).

Ikertzaile berriek, bestalde, interesa jarri dute tokiko hedabideen fenomenoaren esparru zehatzetan. Rojasek (2011), esaterako, aztertu du hedabide horiek egin duten dokumentazio-lan eskerga. Bestalde, Aiestaranek argitaratutako lau lanetan jorratu ditu, batetik, tokian tokiko prentsak eta esparru nazionalekoak elkarlanean aritzeko duten premia (2004); bestetik, euskarazko tokiko hedabideetako langileen lan-baldintzak (2009); gainera, aztertu du hainbat tokiko aldizkariaren irakurleen profila (2010), eta, azkenik, egin du Debarreneko aldizkariaren eduki-analisi konparatiboa (2011). Camachok, berriz, jorratu ditu bai herrialdizkariak hartu duten multimediarantzako bidea (2002b) bai eta tokiko prentsak dituen zereginak ere (2002b, 2004).

Aipatutako artikuluez gain, hiru dira euskarazko tokiko hedabideekin bereziki lotuta idatzi diren doktorego-tesiak: Arangurenena (1999) Camachorena (2002a) eta Aiestaranena (2007).

Esan beharra dago, bestalde, tokiko telebistek ere izan dutela tarte berezirik egindako ikerketa horien guztien artean (Urzelai, 1993; Aranguren, 1993, 1999; Irizar, 2003). Baina, arlo horretan, batez ere aipagarri dira EHUKo Nor taldeak bultzatutako azken ikerketak (Arana, Azpillaga, Narbaiza, 2003a, 2003b, 2004, 2005b). Nor ikerketa-taldeak arreta berezia jarri du tokiko telebistek bizi duten egoeran eta horiek duten garrantzian euskararen normalizazioan (2005a), eta Euskal Herriko komunikazio-mapan (2006). Mapa horretan sakondu dute, halaber, Aranak, Amezagak eta Azpillagak (2010).

Gutxiago dira, ostera, euren jarduna dibertsifikatu duten euskarazko talde multimedien gaineko ikerlanak. Talde horien gaineko ikerketetan hutsunea adierazgarria da kontuan hartzen bada Goiena Komunikazioa Taldea bilakatu dela euskarazko komunikazio-taldearen artean erreferentziakoa, eta bera dela Euskal Herrian dagoen tokiko komunikazio-talderik handiena<sup>4</sup>.

Hartara, Goiena Komunikazio Taldeari buruz kaleratu diren lan bakanen artean aurki daitezke Irizarren (2001) eta Arregiren (2003) txostenak. Gainera, bere urrian bada ere, esan daiteke taldearen multimediatasunerako (Arantzabal, 2005) eta konbergentziarako joerak (Larrañaga, 2008) izan direla ikergai posible guztietatik landu diren bakarrenetarikoak. Azkenik, eta komunikazio-taldeak kudeatzen dituen hedabide jakinetara etorrira, aipagarriak dira Aranak (2004, 2008a, 2008b) idatzitakoak. Euskarazko tokiko hedabideei buruz defendatutako tesien artean, aldiz, ez dago ikerlanik propio Goiena Komunikazio Taldea hizpide izan duenik.

---

4. Ikerketa honetan *Hitza* egunkariak ez dira hartu eskualdeko komunikazio-talde moduan, baizik eta Berria Taldearen adar bezala. Mikel Arrieta Berria Taldeko komunikazio-arduradunaren arabera, guztira 58 lagun ari dira lanean dauden sei *Hitza* desberdinetan. Denetatik handiena *Goierriko Hitza* da, eta 13 lankide ditu (Mikel Arrieta. Komunikazio pertsonala, 2012ko otsailaren 20an).

Ikerketan dagoen hutsunea betetzen hasteko asmoarekin dator, hain justu, azterlan hau. Asmo horri jarraiki, bereziki ikertuko dira Goiena Komunikazio Taldea errealitate bihurtzen laguntzen duten ezaugarriak. Helburu horiek betetzeko, hurrengo ikerketa-galderak hartu dira abiapuntu:

1. Zeintzuk dira Goiena Komunikazio Taldearen ezaugarri bereizgarriak?
2. Zeintzuk izan dira Goiena Komunikazio Taldearen lorpen nagusiak?

## 2. Metodologia

Ikerketa honetarako hartuko den ikuspegia kasu-azterketarena izango da. Batetik, hurbilketa modu horrek ahalbidetzen du, modu ireki batean, ikertzailea murgiltzea arazoaren testuinguruan (Villarreal, Landeta, 2010). Bestetik, kasu-azterketak bermatzen du egitea arazo partikular baten azterketa kontuan hartuta haren konplexutasun osoa (Stake, 1999; Mena, Méndez, 2009). Gainera, ikusi da metodologia hori dela gero eta erabiliagoa deskribatzeko eta interpretatzeko bai erakundeen ibilbidea baita enpresa-fenomenoak ere (Villarreal, Landeta, 2010).

Eskura dauden teknika kualitatibo guztien artean, ikerketa honetan hurrengoak baliatzea erabaki zen: bibliografia eta erakundearen dokumentuen azterketa, sakoneko elkarrizketa eta eztabaida-taldea. Hala, gaiaren gaineko bibliografia landu eta gero, hurrengo urratsa izan da aztertzea Goiena Komunikazio Taldearen dokumentu ofizialak, betiere, ikerketa-gaira hurbiltzeko eta identifikatzeko erakundeko arduradunak eta balizko informatzaileak (Tójar, 2006). Azterketa bibliografikoaren eta erakundearen dokumentu ofizialen azterketaren emaitzak jaso dira 3.1. azpiatalean.

Elkarrizketa sakona, bestalde, baliatu da ezagutzeko kasuaren protagonista esanguratsuenen usteak (Juaristi, 2003) eta horien eragina (Merlinsky, 2006). Era berean, eztabaida-taldearen teknika oso egokia izan da jasotzeko ikertutako gaiaren gaineko talde oso baten informazioa (Juaristi, 2003). Elkarrizketa sakonaren eta eztabaida-taldearen emaitzak islatu dira 3.2. azpiatalean.

Zehazte aldera, honako ezaugarri hauek dituzte ikerketan buruturiko bibliografiaren eta dokumentuen azterketak, elkarrizketa sakonak eta eztabaida-taldeak:

**Azterketa bibliografikoa.** 1990. urtetik abiatuta (*Arrasate Press* astekaria 1988ko abenduaren 2an jaio zen), aztertu dira euskarazko tokiko hedabideekin zerkusua duten artikuluak eta ikerketak. Baina, berebiziko arreta jarri da Goiena Komunikazio Taldea hizpide izan duten ikerlanetan.

**Erakundearen dokumentuen azterketa.** Goiena Komunikazio Taldearen hurrengo aginte-organoen batzar-agiriak jorratu dira: Errektore Kontseilua eta Batzar Orokorrak. Horrela, ikerlan hau egiteko aztertu dira, batetik, Errektore Kontseiluaren 116 bileraren aktak (lehena, 2000ko apirilaren 10ekoa; azkena, 2012ko urriaren 8koa). Bestetik, kontsultatu dira taldeak egindako 14 Batzar Orokorretako beste hainbeste batzar-agiri (hasi 2000ko ekainaren 20an egindako lehenengo Batzar Orokorreko aktarekin, eta bukatu 2012ko uztailaren 19an egindakoarekin). Gainera, proiektua hastapenetik ezagutzeko asmoarekin, jorratu dira, baita ere, erakundea sortu aurreko Jardunen eta ARKOren arteko batzar-

agiriak eta «talde eragileak» —horrela izendatzen dute organo hura 1999. urteko aktetan— egindako bilkuren aktak; guztira, beste 26 agiri. Orotara, ikerketa honetan aztertuko dira erakundearen 160 batzar-agiri ofizial.

**Elkarrizketa sakonaren ezaugarriak.** Elkarrizketatu den pertsonaiari dagokionez, erabaki da elkarrizketatzea Goiena Komunikazio Taldeak lehenengo egunetik ikerlan hau idatzi den egunera arte izan duen lehendakaria: Estepan Plazaola. Egitasmoaren bultzatzaileetariko bat izateaz gain, taldea sortu zenetik, bertako lehendakari eta Zuzendaritza Batzordeko kide da. Elkarrizketa egin zen 2012ko martxoaren 13an, eta iraun zuen ordu eta erdi.

**Eztabaida-taldea.** *Focus group*-a antolatzeko orduan, bete ziren Callejok (2001), Juaristik (2003), Tójarrek (2006) eta Mena eta Méndezek (2009) emandako gomendioak hurrengo gaiei buruz: taldearen osaketa, partaideen kopurua, moderatzailearen jarrera, eztabaidaren iraupena eta gidoiaren garapena. Eratutako taldea izan da adituen talde heterogeneoa (Juaristi, 2003). Taldearen egokitasuna bermatze aldera, aniztasuna zaindu da hurrengo aldagaietan: eskuhartzaileen generoan eta beraien jatorrian, erakundearen sasoi historikoen ordezkapenean, eta, ahal izan den neurrian, partaideen adinean.

Eztabaida-taldea egin zen 2012ko maiatzaren 11n. *Focus-group*-ak bi ordu iraun zuen eta panela osatu zuten hurrengo zazpi lagunek:

1. Goiena Komunikazio Taldearen sorreran ibilitako kide bat: Joxe Aranzabal, Goiena Komunikazio Taldearen sortzaileetariko bat (Elorrio, 59 urte).
2. Goiena Komunikazio Taldeko lan-bazkide bat: Iban Arantzabal, Goiena Komunikazio Taldeko bazkidea eta erakunde horren antolaketa-zuzendaria (Elgeta, 37 urte).
3. Udaletako ordezkari bat Goiena Komunikazio Taldean: Iker Akizu, Eskoriatzako Udaleko ordezkaria Goiena Komunikazio Taldeko Errektore Kontseiluan (Eskoriatza, 37 urte).
4. Euskara elkarteetako ordezkari bat Goiena Komunikazio Taldean: Edorta Arana, Leintz Gatzagako Gurel elkarteko ordezkaria Goiena Komunikazio Taldeko Errektore Kontseiluan (Leintz Gatzaga, 51 urte).
5. Publizitate-jartzaile bat taldeko hedabideetan: Maite Aristegi, publizitate-jartzailea eta kolaboratzailea (Bergara, 49 urte).
6. Goiena Klub-eko bazkide bat: Itxaro Zubillaga, Goiena Klub-eko bazkidea (Aretxabaleta, 42 urte).
7. Topagunea Euskara Elkarten Federazioko kide bat (bertako bazkide da Goiena Komunikazio Taldea ere): Jasone Mendizabal, Topaguneko zuzendaria (Arrasate, 43 urte).

### 3. Ikerketaren emaitzak

Emaitzak bi multzotan sailkatu dira: hasteko, oraindik bere osatasunean jaso barik zegoen Goiena Komunikazio Taldearen ibilbide historikoa bildu da. Ondoren, egin da talde horren nortasun-ezaugarrien eta lorpenen deskribapena.

### 3.1. Goiena Komunikazio Taldearen historia

Goiena Komunikazio Taldea sortu zen nagusiki bi xede betetzeko. Batetik, batzeko eta modu eraginkorragoan kudeatzeko Debagoieneko bederatzi herrietako euskarazko tokiko hedabideak (komunikabideak eurak, baina baita erredakzio-taldeak, baliabideak eta egoitzak ere); eta, bestetik, egituratzeko erakunde indartsu bat, gauza izango zena aurre egiteko ibarreko komunikazio-erronka berriei. Desafio berri horiek zerikusia zuten, batez ere, herriz gaindiko informazioaren hedapenarekin eta zerbitzu multimedien eta Internetekoen eskaintzarekin.

1999 hasieran egin ziren erakunde berria sortzeko lehenengo bilerak. Bilkura haietan elkartu ziren, batetik, Arrasate Komunikabideak (ARKO) elkarteko ordezkariak (*Arrasate Press* aldizkariaren eta Arrasate Telebistaren (ATB) kudeatzailak), eta, bestetik, *Berrigara* astekariko argitaratzaileak, alegia, Jardun Bergarako euskara elkarteko kideak: «Bien begiradak gurutzatu zirenean abiatu zen Goiena» (Irizar: 2001:14).

Hasierako elkartze haien lehenengo akta ofiziala 1999ko ekainaren 12koa da. Dokumentuan jasotzen da bultzatzaileek zuten asmo nagusia: «Beste komunikabide batzuk martxan jartzeko elkarte berri bat sortzea», eta azpimarratzen da, era berean, erakundearen erabateko izate multimedia (ARKO eta Jardunen arteko bilera akta, 1999ko ekainaren 12a).

Orotara, taldearen bateratze-prozesuak urte eta erdi iraun zuen. Epe motza, kontuan hartzen badira proiektuak erakusten zituen zailtasunak: batetik, uxatu behar ziren zenbait euskara-elkartek eta udal-ordezkarik zituzten kezka; esaterako, hedabide bakoitzeko langileen etorkizunaren, euskalkiei emango zitzaizkien tratamenduaren edota bultzatzaileen hegemonia-nahiaren gainekoak. Bestetik, erakarri behar zituzten erakunde bakarrera bederatzi euskara-elkarte, beste hainbeste udalbatza eta hamar tokiko hedabide. Horiek guztiak, herritik eskualdera jauzi egiteak zekartzan zalantza eta ezjakintasun guztiekin. Esan beharra dago erabaki ezohiko batek eragin handia izan zuela egitasmoak hartu zuen abiadura bizkorrean: deliberatu zuten bateratze-prozesuari kudeatzaile profesionala jartzea (ARKO eta Jardunen arteko bilera akta, 1999ko urriaren 1ean).

Mikel Irizar kudeatzailearen betekizun garrantzitsuena izan zen idaztea *Goiena egitasmoa: oinarrizko dokumentua* (Irizar, 2001:17), txosten hori izan zen eragilearen aurrean aurkeztu zena eta erabili zena lortzeko proiektuaren aldeko atxikimenduak. Idazlan horrek jaso zituen, besteak beste, etorkizuneko erakundearen nortasun-ezaugarriak, elkartearen jarduerak eta taldearen oinarri filosofikoak.

Bilera eta aurkezpen ugariren ondoren, azkenean, 2000ko martxoaren 31n jaio zen, era ofizialean, Goiena Komunikazio Taldea: egun hartan bailarako bederatzi euskara-elkartek onespina eman zioten egitasmoari. Eskritura publikoen sinatze-ekitaldia, aldiz, geroago egin zen; hain zuzen ere, urte bereko ekainaren 17an.

Debagoieneko udalen atxikimenduak, bestalde, erritmo motelxeagoa izan zuen: 2002ko maiatzaren 6ko Errektore Kontseiluko aktan jasotzen da zortzi herritako udalbatzek oniritzia eman ziotela Goiena egitasmoari 2001 eta 2002ko martxoaren arteko epean. Egun ere, Bergarako Udala da bailarako udal bakarra erabaki

duena bazkidetza-eskaera ez egitea komunikazio-kooperatiban; udal horrek hitzarmenen bidez lotzen du taldearekin duen harremana.

Hala, 2000. urteko martxoaren 31n, hurrengo hedabideak bildu ziren Goiena Komunikazio Talde jaio berrian (Arana, 2008a: 9): paperezkoetatik, *Aretxagazeta*, *Aretxabaletakoa*; *Arrasate Press*, *Arrasatekoa*; *Berrigara*, *Bergarakoa*; *Goibekokale*, *Elgetakoa*; *Kontuola*, *Antzuolakoa*; *Txirritola*, *Aramaiokoa*; *Urlatik*, *Leintz Gatzagakoa* eta *Ze barri?*, *Eskoriatzakoa*. Gainera, egitasmoarekin bat egin zuten bailarako euskarazko bi telebistek: *Arrasate Telebista* (ATB) *Arrasatekoak* eta *Atxabalta Telebista Aretxabaletakoak*. Udal-lizentziadun *Arrasate Irratia* ere pasatu zen Goiena Komunikazio Taldearen kudeaketara. Bateratze-proiektutik kanpo geratu ziren, aldiz, hurrengo udal komunikabideak: *Telesko telebista* elebiduna *Eskoriatzan*, eta Oñatiko *Kontzejupetik* hilabetekaria eta Oñati *Irratia*, udal-lizentziaduna azken hori ere.

Bildu ziren hedabideak berrantolatzeaz gain, azkar ekin zioten eskualde osorako hedabide berriak ekoizteari. Abiatu ziren ikus-entzunezkoekin: 2000ko maiatzaren 22an, *Goiena Telebistak* (GOITB) ekin zion emisioari. *Arrasate Telebistaren* tresneria baliatuz, eskualde osorako emititzen hasi ziren *ATBren* *Arrasateko* estudioetatik.

Papereko euskarrian, 2000ko abenduaren 1ean, *Goienkaria* astekaria jaio zen. Bailara osoko gaiak jorratzeko jaiotako doako argitalpenak egunkari-formatua zuen, eta orduko herri-aldizkariekin batera banatzen zen, haien osagarri.

Hilabete batzuk geroago, ordea, 2001eko urriaren 19an, bailarako aldizkari guztiak asteroko maiztasunera etorri, eta banatzen hasi ziren *Goienkaria*-ren barruan lau ediziotan (Arana, 2008a).

Sei urteren buruan, bestalde, *Goienkaria* pasatu zen lau edizio izatetik eta barruan jasotzetik bailarako astekari guztiak, edizio bakarra izatera. Horrekin batera, herrien atalei izena ematen zieten mantxeta historikoak (*Arrasate Press*, *Aretxagazeta*, *Berrigara*, *Kontuola*...) desagertu egin ziren (Arana, 2008a).

Paperezko euskarrien maiztasuna handitze aldera, 2003ko abenduaren 22an kaleratu zuten *Asteleheneko Goienkaria*-ren zero zenbakia. Hurrengo otsailaren 16tik aurrera jarri ziren asteroko erritmoan. Ostiraleko debaldeko argitalpenarekin alderatuta, *astelehenekoa* ordainpekoa zen.

Interneteko lehen hedabidea, berriz, erakundea sortu eta hiru urtera sareratu zuten: 2003ko abenduaren 2an aurkeztu zen *Goiena.net* eskualdeko Interneteko ataria. Goiena Komunikazio Taldekoak ez ziren Interneteko jardunean hasiberriak; izan ere, aurretik oso ikastoki aproposa izan zuten: *Sustatu.com* blog aitzindaria (2001eko urrian jarri zuten abian elkarlanean Goiena Komunikazio Taldeak eta CodeSyntax Eibarko enpresak euskarazko blog komunitario hura).

2012ko urrira etorrita, Goiena Komunikazio Taldeak hurrengo hedabideak kudeatzen ditu:

- **Internet:** *Goiena.net*, berau da taldearen ardatz nagusia: sareko atari horretan batzen dira kooperatibak kudeatzen dituen hedabide eta webgune

guztiak. Bestalde, Goiena Komunikazio Taldeak partaidetza du CodeSyntax enpresak editatzen duen *Sustatu.com* blogean. Gainera, Facebook-en ere kontua du, eta, 2011ko ekainaz geroztik, Twitter-en irekita ditu 16 kontu desberdin.

- **Telebista:** Goiena telebista. Debagoienean ikusten da LTDz, eta EAE osoan, Euskaltelen zuntz optikoaren bitartez.
- **Argitalpenak:** Goiena papera. Astean bi egunean banatzen da argitalpen hori: ostiraletan eta astelehenetan. Ostiralekoa doakoa da eta 20.100 aleko botaldia du, betiere, OJDk (Oficina de Justificación de la Difusión) 2011n emandako datuen arabera. Asteleheneko edizioa, aldiz, ordainpekoa da, eta, OJDren 2011ko datuen arabera, kaleratzen dituen 5.000 aleak, batez ere, harpidedunen artean banatzen dira. Bestalde, urtean behin, Goiena Gida ere kaleratzen da.
- **Irratia:** Arrasate Irratia. 1994an jaiota, Arrasateko Udalaren lizentzia du, baina Goiena Komunikazio Taldeak kudeatzen du. Egunean 24 orduko emisioa du. *Goiena.net*-en bidez ere entzun daiteke.

Hedabide horiek guztiak ekoizten dira taldeak Arrasaten duen egoitzan. Idazgela multimedia eta bateratua da Goiena Komunikazio Taldearena: Arrasateko erredakzioan, kazetariak gaika antolatuta daude eta euskarri desberdinetarako sortzen dituzte edukiak.

Goiena Komunikazio Taldearen hedabideek lortu duten atxikimenduaz jabetzeko, erreparatzea baino ez dago audientzia-datuei eta egindako inkestentz emaitzei. Esaterako, Hego Euskal Herriko audientziak neurtzen dituen CIES erakundearen 2011. urteko bigarren labealdiko neurketen arabera, Goiena paperak lortu du erabateko nagusitasuna Debagoienean: ostiralekoak 26.000 irakurle ditu eskualdean —Debagoieneko bigarren hedabide irakurriena *El Diario Vasco* da, eta ditu 16.000 irakurle—. Bestalde, eta CIESen 2011ko datuekin jarraituta, Goiena telebistak biltzen ditu egunero pantaila aurrean 5.000 ikusle Debagoienean, *share*-aren % 9,9.

Interneten ere *Goiena.net* inoizko emaitzarik onenak lortzen ari da azkenaldian. Hala, % 50,42ko hazkundera izan zuen Debagoieneko atariak 2011. urtean: aste barruan, 4.000 bisitari bakar izan zituen egunero. Urte horretan 998.000 bisitari bakar erakartzea lortu zuen, betiere Google Analytics-ekin neurtutako eta erakundeak berak argitaratutako datuen arabera.

Bestalde, Aztiker enpresak 2012ko urtarrilean Debagoieneko 800 herritarri egindako galdeketa arabera<sup>5</sup>, debagoiendarrek oso pertzepzio argia dute komunikazio-taldearen gainean: herritarren % 96,8k —alegia, baita euskaraz ulertzen ez dutenek ere— uste du «beharrezkoa» edo «oso beharrezkoa» dela edukitzea Goiena Komunikazio Taldearena bezalako proiektu bat. Gainera, inkestatuek bereziki ondo baloratzen dute egitasmoaren pluraltasuna: galdetegia

---

5. "Goiena Komunikabideak: irakurleak, asebetetzeak, ohiturak eta etorkizuneko joerak/jokaerak, 2012". Ikerketaren egileak: Aztiker. Unibertsoa: 15 eta 54 urte arteko Debagoieneko biztanleria (33.948). Lagina: 800 herritar. Landa-lana: 2012ko urtarrilaren 26tik otsailaren 10era bitartean. Akats tarteak: +-% 3,49 lagin osorako, % 95,5eko konfiantza-maila eta p=q=% 50,0 denerako.



erantzun zutenen % 71,9k zioen Debagoienekoa proiektu plurala zela eta independente indar politiko edo ekonomikoekiko.

Aztikerren inkestarekin jarraituta, baina, hedabideen gaineko emaitzetara etorrira, ikusten da Goiena papera oso errotuta dagoela Debagoienean: 15-55 urte bitarteko debagoiendarren % 99,5ek ezagutzen du argitalpena. Irakurle fidelak ditu gainera, emaitzen arabera herritarren hiru laurdenak (% 73,3) irakurri baitzuen azken zenbakia.

Goiena telebistari dagokionez, Aztikerrek galdekatutako hamarretik bederatzik (% 91,0) ezagutzen du Goiena telebista. Galdetegia erantzun zuen debagoiendarren % 14,2k esan zuen inkestaren egunaren bezperan bertan ikusi zuela bailarako telebista.

Debagoieneko Internet atariari buruzko datuei erreparatuz gero, esan daiteke inkestatuen % 48,7k ezagutzen duela *Goiena.net* webgunea. Sareko ataria, bereziki, 15-35 urte bitarteko herritarren artean da ezaguna; izan ere, adin-tarte horretan % 62,8ra arte igotzen da ezaguera-maila. Oro har, Aztikerren inkestaren arabera, erabiltzaileek oso balorazio positiboa egiten dute *Goiena.net* atariari buruz: batez beste, 7,4ko nota jarri diote.

Bestalde, aipagarriak dira hedabide horiek guztiek jaso dituzten nazio zein nazioarteko aitorten eta sariak. Garrantzitsuenak aipatzearen, 2002an *Goienkaria*-k Argia saria jaso zuen prentsa-atalean. 2003an, aldiz, *European Newspaper Awards* lehiaketan, irabazi zuen Europan ondoen diseinatutako tokiko egunkariaren saria. Gainera, 2002 eta 2006 urte bitartean, aipamen ugari jaso zituen SND-E (Society for News Design) nazioarteko elkarteko Espainiako atalak antolatutako lehiaketetan. Erakundeari berari dagokionez, Goiena Komunikazio Taldeari eman zioten 2010. urteko Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien (RAKS) Sari Nagusia.

Taldearen eraketa-eredura etorrira, komunikazio-alorreko jarduna izateko, eredu ezohikoa aukeratu zuen Goiena Komunikazio Taldeak: kooperatiba izatea. Kooperatiba berezia gainera, bitarikoa. Izan ere, aginte-organoetan tokia dute, lan-bazkideetatik aparte (ohiko formula), Debagoieneko udalek eta euskara-taldeetako ordezkariak. Horrela, Errektore Kontseilua osatzen dute hurrengo ordezkariak: 4 kide, bazkide erabiltzaileak ordezkatzeko —euskara-taldeak—; 3 kide, lan-ordez-kari moduan; eta, azkenik, 2 kide, bazkide laguntzaileak ordezkatzeko (Batzar Orokorreko akta, 2010eko ekainaren 22an).

Lantaldeak duen tamaina ere aipagarria da: Goiena Komunikazio Taldeak 47 langile (30 emakumezko eta 17 gizonezko) ditu; horietatik 31 lan-bazkideak dira eta 16 langile kontratatuak (Agurtzane Gainzarain. Komunikazio pertsonala, 2012ko martxoaren 1ean).

Erakundearen aurrekontuen zenbakiak ere ez dira nolanhikoak: 2011. urtean, komunikazio-taldeak 2.408.013 euroko aurrekontu ikuskatua zuen. Etorkizunerako aurreikuspen ekonomikoak, baina, ez dira hain baikorrak. Krisi ekonomikoa, publizitatearen jaitsiera eta diru-laguntzen murrizketak direla-eta, 2012ko aurrekontua aurreko urtekoa baino % 5 txikiagoa da. Gainera, aurreikusten dute urtea bukatzea 28.616 euroko galerarekin (Agurtzane Gainzarain. Komunikazio pertsonala, 2012ko maiatzaren 2an).

Autofinantzaketa etorrira, bestalde, aipatu behar da arlo horretan taldeak 13 puntu egin duela gora hamarkada eskas batean: 2002. urtean, Goiena Komunikazio Taldearen autofinantzaketa % 44koa zen; 2011n, ostera, % 57koa izatera iritsi zen (Agurtzane Gainzarain. Komunikazio pertsonala, 2012ko maiatzaren 2an).

Gainera, hedabideak ekoiztetik aparte, komunikazio-taldeak bultzatu du bere jarduerarekin lotura duten beste zenbait enpresa-ekimen; esaterako, Batu-Banatu banaketa-enpresa. Era berean, Debagoieneko taldeak partaidetza du hurrengo bi enpresetan: Arteman Komunikazioa publizitate-agentzian eta Batura Mobil Solutions-en. Horietan, Goiena Komunikazio Taldearen partaidetza da, hurrenez hurren, % 49koa eta % 46koa.

2010. urtearen amaieran, erakundearen 10. urteurrenaren bueltan egindako hausnarketa-prozesuaren ondoren, Goiena Komunikazio Taldeak erabaki zuen hobeto kudeatzea Goiena markak atxikita dituen balioak eta deliberatu zuen bazterreratzea ordura arte erabilitako mantxeta eta izen desberdin guztiak —esaterako, *Goienkaria*, *Asteleheneko Goienkaria* edo GOITB— eta ematea izen bera taldeko komunikabide guztiei: «Goiena». Orduetik hona, hedabide horien izenak dira Goiena papera, Goiena telebista, Goiena Internet eta Goiena Gida. Horren haritik, taldeak baliatu zuen 2011. urteko Batzar Orokorra eguneratzeko erakundearen izendapena: pasatu zen deituzetik Goiena Komunikazio Zerbitzuak, izatera Goiena Komunikazio Taldea (Batzar Orokorreko akta, 2011ko martxoaren 31n).

Gainera, 2011ko Batzar Orokorrean beste erabaki garrantzitsu bat ere hartu zuten: boto-emaileen % 96,16k baiezkua eman zion Mondragon Unibertsitatearekin (MU) batera, Aretxabaletako campusean egoitza partekatzeari eta sendotzeari «hezkuntza eta komunikazioa lantzen duten bi erakundeen arteko sinergiak eta elkarlanerako ildoak» (Batzar Orokorreko akta, 2011ko martxoaren 31n).

Egun, Goiena Komunikazio Taldea berrikuntza-prozesuan murgilduta dago, eta bukatu berri du zuzendari nagusia ordezkatzeko prozesua: 2012ko urriaren 8ko bileran, Errektore Kontseiluak erabaki zuen Iban Arantzabal izendatzea taldeko zuzendari nagusi, Inazio Arregiren tokia hartuta (Kontseilu Errektoreko akta, 2012ko urriaren 8koa).

Behin ezagututa Goiena Komunikazio Taldearen jatorria eta egin duen ibilbidea, unea da aztertzeke taldearen nortasun-ezaugarriak eta lortu dituen emaitzak oro har.

### **3.2. Goiena Komunikazio Taldearen berezitasunak eta lorpenak**

Azpiatal honetan aurkeztuko dira, gaika antolatuta, elkarrizketa sakonean eta eztabaida-taldean jorrotutako gai garrantzitsuenak. Hurrengo lerrootan jasoko dira, beraz, batetik, Estepan Plazaolaren iritziak, eta, bestetik, *focus group*-ean esku hartutakoen gogoetak, alegia, Iker Akizu, Edorta Arana, Iban Arantzabal, Joxe Aranzabal, Maite Aristegi, Jasone Mendizabal eta Itxaro Zubillaga taldekideen pentsaerak.

## **Debagoiena gorpuzten**

Mahaikideen artean ahobatezkoa izan da gai honi buruzko iritzia: Goiena Komunikazio Taldeak berebiziko garrantzia izan du bailararen kohesioan eta partaidetza-sentimenduaren indartzean. Bildutakoen arabera, komunikazio-taldeak onura handiak ekarri dizkio bailarari, bai elkar ezagutzearen ikuspegitik bai eta autoerreferentzia zabaltzeari dagokionez ere.

Parte-hartzaileen ustetan, hamaika urteren buruan, herri solteaz osatutako Deba Garaia izatetik (hori zen orduko izen ofiziala), pasatu da eskualde batua izatera: «Egun, Debagoiena, existitzen da. Debagoiena, bada» (Iban Arantzabal).

## **Kooperatiben eragina**

Debagoienaren eta debagoiendarren nortasunean kooperatibek izan duten eragina ukalezina da eztabaidakideentzat: modu batera edo bestera, denen ahotan egon da kooperatiben garrantzia nortasunaren eraikitze-elementu indartsu bezala.

Nabarmentzen da kooperatibek erakutsi dutela ahalmen handia batetik eta bestetik jendea erakartzeko: «Horrek jarri gaitu antzekotasun eta eskubideberdintasun integrazio-dinamika garrantzitsu batean» (Edorta Arana). Gainera, uste da testuinguru horretan, debagoiendarrak erakutsi duela «izaera zabala, eta beste batzuekin elkartzeko sena» (Maite Aristegi).

## **Herri-aldizkaritik, eskualdeko hedabideetara, urratsez urrats**

Urtetako lanaren emaitza moduan ikusten da herritik bailarara egindako jauzia. Prozesuaren zailtasunak aipatu dira behin baino gehiagotan: batetik, zenbait herritako eragileen atxikimendua lortzea; bestetik, uxatzea antolamenduari buruzko kezak, eta, azkenik, errespetatu beharra bakoitzaren nortasun-ezaugarriak: «Bazegoen susmoa arrasatearren proiektua zela, eta Arrasatek besteei inposatu nahi ziena» (Estepan Plazaola).

Jasone Mendizabalentzat, Debagoienean gertatutakoa «miraria» izan da; izan ere, jakitun da beste toki batzuetan antzeko saiakerak aurkitu dituztela traba gaindiezinak eta ezinezkoa izan dela bateratzea herri desberdinetako proiektuak.

## **Aitzindari bai, baina, eredu?**

Aitortzen da Goiena Komunikazio Taldeak lortu duela erreferentziatzeko erakunde bihurtzea eta, Euskal Herrian zein kanpoan, izatea «oso kontuan hartzen den esperientzia» (Jasone Mendizabal).

Kezka sortu da mahaikideen artean onartzerakoan, azkenera, Debagoienekoa lakorik ez dela beste inon gorpuztu hamaika urteren buruan: «Herri-aldizkariekin gertatu zen, baina orain, ez. Goienak ez du asmatu prototipo esportagarri izaten» (Edorta Arana). Ereduaren berri emateko orduan, bestalde, aitortu da taldearen gaineko informazio biltze- eta zabaltze-prozesuan hutsuneak egon direla: «Goienan, aurkezpen asko egin dituzue, baina idatzi gutxi» (Joxe Aranzabal).

Antzeko komunikazio-taldeak sortzeari buruz, uste da gakoa egongo dela, batetik, balizko talde berriek hartu beharko luketen dimentsio neurtuan, eta, bestetik, Interneten oinarritzean. Gainera, elkartutakoen arabera, egungo krisi-egoerak nabarmendu egiten du batasunerako premia. «Oraindik ez da gertatu. Urte gutxi batzuk beharko dira, baina, etorri badatoz» (Iban Arantzabal).

### **Pluraltasunarekin bueltaka**

Aniztasunaren trataerari dagokionez, eztabaidakideek alde handia sumatzen dute Goiena Komunikazio Taldearen eta bestelako hedabide askoren jarreraren artean. Batzuek diote, hala ere, Debagoienekoan ere igartzen dela «zeinek ematen duen dirua» (Itxaro Zubillaga). Beste batzuk, ordea, kexu dira ez dela batzuetan nahikorik kontuan hartzen Debagoieneko erakundeen eta herritarren izaera abertzalea. Batera zein bestera, ondo baloratzen da espektro politiko guztietakoek egin behar izatea argitaratutakoaren gaineko irakurketa kritikoa.

Hala ere, azpimarratu da Goiena Komunikazio Taldearen lorpenik handienetarikoa etorri dela ideologiatik baino, «komunitatea sendotzetik, edozein dela ere sentsibilitate politikoa» (Jasone Mendizabal). Arantzabalen ustetan, politika barrutik bizi dutenen iritzi pertsonaletatik haratago, eta Aztikerren inkestaren emaitzek erakusten duten moduan, herritarren artean hau da pertzepzio nagusia: «Goiena plurala da» (Iban Arantzabal).

Kaleratzen diren edukien kalitate-mailaren gainean, ez dago zalantzarik: edukiak «oso fidagarriak dira» (Itxaro Zubillaga). Horren harira, bildutakoek uste dute taldeak lantzen duen informazioa izatea, besteak beste, gertu-gertukoa eta, ondorioz, egiaztagarria, lagundu egiten duela emaitzen zuzentasunean.

### **Euskarari egindako ekarpenean, hiru ardatz**

Goiena Komunikazio Taldeak euskararen normalizazioari egin dion ekarpena aztertzerakoan, hiru alderdi nabarmendu dira: batetik, erabiltzaile berriak ekarri izana euskarara; bestetik, irabazi izana esparru berri bat euskararentzat eta eutsi izana erreferentzialtasunari eta irabazitako tokiari (horren erakusgarri da euskarazkoa izatea bailarako hedabiderik irakurriena); eta, azkenik, bultzada eman izana bertako euskalkiari.

Helduen alfabetatze-prozesuan oso garrantzitsutzat jo da Debagoieneko tokiko hedabideek egindako lana: «84 urteko gure ama hasi zen euskaraz irakurtzen herriko aldizkariari eta Goienari esker, *Goienkaria*-ri esker [...] egun, *Berria* irakurtzeko ere gauza da» (Maite Aristegi).

Gainera, egoki ikusten da euskara batuak ez ezik, euskalkiak ere tokia hartu izana eskualdeko komunikabideetan. Alde horretatik aipatzen da Goiena Komunikazio Taldeak lagundu duela bertako euskalkia bizi izaten «naturaltasunez» (Iker Akizu).

Iban Arantzabalen esanetan, euskalkiaren kontuan, kazetarien gaitasunetik haratago, «autokudeaketak» ederki funtzionatu izan du. Zuzendaritzaren aldeko edo kontrako politikariek ezean, Goiena Komunikazio Taldeak egin duena izan da, «euskalkia ez baztertu» (Iban Arantzabal).

## «Hiru hankako eredu» eztabaidagai

Orain arteko ereduaren baliagarritasuna ere hizpide izan da. Egun, komunikazio-kooperatibaren indarra oinarritzen da berau osatzen duten hiru agenteetan: euskara elkarteak, udalak eta lan-bazkideak. Lehenengo bietan, ordea, ahulda-deak sumatzen dira: batetik, bailarako zenbait herritan euskara-elkarteen iraupena kolokan dagoelako, eta, bestetik, krisi ekonomikoa dela-eta, zenbait udalek diru-laguntzak murrizteko joera erakutsi dutelako. Alde horretatik, ezbaian jarri barik egun dagoen aginte-antolaketa eredu, premia ikusten da esparru berrietara irekitzeko eta etorkizuneko estrategiak finkatzeko.

Gainera, uste da une aproposa dela bailarako beste eragileei zein kanpokoei ere tokia egiteko; esaterako, beste komunikazio-taldee edo askotariko gizarte-mugimenduei (kontsumitzaileak, erretiratuak, elkarteak...), betiere, sendotzeko taldearen bueltan eraikitako komunitatea eta bultzatzeko eredu parte-hartzaileago bat<sup>6</sup>. Esandakoarekin lotuta, bildutakoek oso interesgarritzat jotzen dute Mondragon Unibertsitatearekin proposatutako lankidetzaren estrategikoa. Izan ere, elkarlan horretan, euskara lagun, komunikazioa izango da ardatz nagusia. Estepan Plazaolaren ustez, unibertsitatearekin batera hartutako bidea «jauzi kualitatiboa» da komunikazio-taldearentzat.

### Aurrera begira ez, aurrean

Bildutakoek ausardia aitortu diote taldeari: berrikuntzen alde apustu egiteko gogoia eta kemena. Ikusita ere emaitzak ez direla beti izan espero bezain arrakastatsuak —adibidez, bertan behera utzitako bi zerbitzuak: *Zugaz.com* gaztetxoei zuzendutako euskarazko sare soziala eta *Merkatua.com* eskualdeko denda birtuala—, mahaikideen iritziz, oso beharrezkoa da ahaleginak egitea eta produktu berriak kaleratzea. Eta, jardun horretan Goiena Komunikazio Taldea ondo ari dela esan da: «Ez dut uste aurrera begira dagoenik. Nik uste dut aurrean dagoela» (Edorta Arana). Esandakoaren frogatzat aipatu da hurrengo egunetan aurkeztekoa den sakelakoentzako aplikazio berria. Propio egindako *Apps* horrekin, herritarrek jaso ahal izango dituzte taldearen eduki guztiak eskuko telefono aurreratuetan [azkenean, aplikazio berri hori jarri zen abian eztabaida egin eta 20 egunera, hain zuzen ere, 2012ko ekainaren 1ean]. Izan ere, hortxe ikusten dute mahaikideek indarrak metatu beharra: sakelako gailuetan eta ikus-entzunez-koetan.

Eztabaida-taldeko kideen aburuz, komunikazioaren aldetik taldeak dituen erronka nagusietarikoak dira, batetik, paperezkoarekin lortutako erabateko arrakasta beste euskarrietan ere lortzea; bestetik, Interneti lehentasuna ematea, eta, azkenik, gazteak erakartzea. Asmo horiek guztiak betetzeko, mahaikideen iritziz, bi alderdi hartu behar dira gogoan: lehena, eskaintzea hartzaile bakoitzaren

---

6. Horri gagozkiola, Tokikom-ek “Zein egitura komunikatibo behar du euskal hiztun komunitateak?” izenburupean antolatutako jardunaldian (Arrasate, 2012ko ekainaren 15), kazetaritza profesionala eta hiritar kazetaritza uztartzen dituen eredu interesgarria aurkeztu zuen Bart Bijmens Limburg-eko (Flandria) *Het Belang* egunkariko kideak. Eredu horri esker, besteak beste, 7.000 hiritar-kazetaritik gora dituzte izena emanda kazeta horretan, eta horrek Limburgen are sakonago errotzea ahalbidetu die. Eredu horri buruzko informazio gehiago, hemen: <<http://bit.ly/U81dj7>>.

neurrira egindako informazio-proposamen berritzaileak eta, bigarrena, ugaltzea Danbaka musika-lehiaketa edo Kantari gaztetxoan jaialdi ibiltaria moduko produktu multimedia arrakastatsuak.

#### 4. Ondorioak

Ikerketaren azken atalera iritsita, eta ondorioak ateratzeko asmoz, berrartu egingo dira ikerketaren abiapuntu izan diren ikerketa-galderak. Geroago, azalduko dira ikerlanaren mugak eta, azkenik, proposatuko dira aurrera begirako zenbait ikerlerro posible.

##### 4.1. Zeintzuk dira Goiena Komunikazio Taldearen ezaugarri bereizgarriak?

- **80ko hamarkadako herri-komunikabideetan oinarritutako egitasmoa.** Debagoieneko komunikazio-taldea hazi da 80ko hamarkadako herri-komunikabideek ongi ereindako lurrean. Horra bildu dituzte, besteak beste, hurrengo berritasunak: izaera kooperatiboa, elkarlan-kultura, proiektuaren bultzatzaileen kemena, pluraltasunaren aldeko apustua, berrikuntzarako joera eta herritarren atxikimendua.

- **Taldea dago etengabeko birdimentsionatze- eta bateratze-prozesuan.** Batasuna eta sendotasuna lortzea betidanik izan da helburu garrantzitsu bat Goiena Komunikazio Taldearentzat. Hasita erakundea bera sortzeko arrazoietatik, Debagoieneko kooperatibak beti izan du kezka berezia batasuna bultzatzeko eta emateko erakundeari jarduerak eskatzen zuen tamaina; alde horretatik, taldea hasiera-hasieratik egon da etengabeko birdimentsionatze-prozesuan. Hamabi urtean zehar, batzera egin den bidea hainbat arlotan gauzatu da: edizioak batuz joan dira, egoitzak gutxituz... Gainera, lan egiteko moduan ere nagusitu da batzerako joera hori: kazetari multimedia da Goiena Komunikazio Taldearena.

##### 4.2. Zeintzuk izan dira Goiena Komunikazio Taldearen lorpen nagusiak?

- **Erakutsi dute gaitasuna eragileak erakartzeko proiektura.** Goiena Komunikazio Taldearen egitasmoa gauzatzeko behar zen agente askoren inplikazioa. Batez ere hastapen-fasean, horrek eskatzen baitzuen bultzatzaileen aldetik malgutasuna, parte-hartzaileen erritmo desberdinekiko errespetua eta alboratzea tentazioa erabakiak goitik behera hartzeko. Jasotako emaitzek erakutsi dute hartutako eratzere-eredua, alegia, pausoz pausoko bilakaera, izan zela zentzu oneko erabakia.

- **Komunikazio-taldea bilakatu da eskualdearen kohesionatzaile garrantzitsuenetarikoa.** Esan daiteke gorpuz hartuz doala komunikazio-taldea sortu zutenean zehaztutako balioetako bat: «Eskualdearen garapena: eskualdearen gizarte kohesioa eta komunitate zentzua bizkortzeko jarrera aktiboa»<sup>7</sup>. Izan ere, asmatu dute xede hori gauzaten: egun, Goiena Komunikazio Taldea ageri da balarako bateragile eta kohesionatzaile nagusi modura; horrez gain, taldea ikusten da komunitate-pertzepzio sortzaile eta elkar ezagutzaren hedatzaile garrantzitsu gisa.

---

7. Iturria: Goiena Komunikazio Taldeko balioak. <<http://bit.ly/PcwxNx>>.

• **Eutsi diote lehenagoko herri-komunikabideek lortutakoari, eta eskaini dituzte zerbitzu berriak eskualderako.** Taldea sortzerakoan izandako bi erronka nagusiak bete dira: batetik, eskualdeko bederatzi herrietako tokiko hedabideak batu, eta horiek modu efiziente eta gardenean kudeatzea (horren adibide, kooperatibaren urteroko kontu-ikuskapena, kontrol-organoen funtzionamendua edo hedapenaren gaineko datuak argitaratzea), eta, bestetik, egitura sendoa osatzea, betiere, eskaini ahal izateko produktuak, gai izango direnak eskaera berriei erantzuteko. Hala eta guztiz, azpimarratzekoa da ez dela errepikatu 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990ekoaren hasieran jazotakoa. Orduan, euskarazko herri-aldizkariak Euskal Herri osora zabaldu ziren, lehenengoak Debagoienean sortu eta sendotu ondoren. Haatik, orduan ez bezala, Goiena Komunikazio Taldeak landutako izaera multimedialak ez du efektu biderkatzailerik izan oraingoan, taldearen eredia ez baita, gaur gauzkoz, beste inon errepikatu. Bestalde, ekonomiak eta bereziki komunikazio-esparruak bizi duen aldaketa- eta krisi-garai honetan, taldeak erronka handia du lortutakoari eusten etorkizunean ere, eta krisi-egoerara egokitzen.

• **Bultzatu dituzte taldearen multimediatasuna eta kazetari multimedia espezializatuen rola.** Goiena Komunikazio Taldearen indarguneetariko bat bada heldu ahal izatea informazioari adar guztietatik. Hartara, Debagoieneko taldea gauza da modu multimedialan erantzuteko balarak dituen informazio beharrei. Xede horretan berebiziko garrantzia izan du taldeak egin duen apustuak kazetari multimedia espezializatuaren eta erredakzio bateratuaren alde. Larrañagak (2008:79) bere ikerketan dioten moduan, «Goienako kazetaria polibalentea da». Hala ere, eskaintza multimedia eta *digital first* leloa nagusitzen ari diren honetan, ezinbestekoa da ematea erabateko lehentasuna sareari eta bestelako pantailei.

• **ekoizten dituzte eskualdeko hedabiderik erabilienak, eta, hartzaileen iritziz, pluralak ez ezik, beharrezkoak dira.** Gaztelaniazko komunikazio-talde handien aurrean, euskarazko taldearen hedabideek lortu dute izatea erreferentzia nagusi eskualdean. 2011. urteko CIESen datuen arabera, Goiena papera da Debagoieneko hedabiderik irakurriena (26.000 irakurle ditu) eta Goiena telebistak du % 9,9ko *share*-a. Google Analytics-en arabera, bestalde, *Goiena.net* atariak 4.000 bisitari bakar lortu zituen egunero urte berean. Izan ere, tokiko hedabideak oso ezagunak dira eskualdean: Aztikerrek 2012an egindako ikerketaren arabera, Debagoieneko 15 urtetik 54 urtera bitarteko inkestaren % 99,5ek ezagutzen du paperezko argitalpena<sup>8</sup>. Baina, ezagunak bakarrik ez, beharrezko ere bilakatu dira Goiena Komunikazio Taldeko hedabideak: inkesta horren arabera, Debagoieneko populazioaren % 96,8k uste du komunikazio-taldea egotea dela «beharrezkoa» edo «oso beharrezkoa» bailararentzat. Bestalde, gure ikerketan jasotakoak bat datoz Aztikerren emaitzekin: ikerlan horren arabera, Goiena Komunikazio Taldea-

---

8. Euskarazko tokiko hedabideek ezaugarri komun bat dute: produktu ezagunak izatea eta herritarren atxikimendu handia lortzea. Horren erakusgarri, Aiestaranek (2010), gure ikerketaren pareko emaitzak jaso izana bost tokiko aldizkariren gainean egindako ikerlanean: tokiko hedabide haien gaineko ezagutza-maila dago % 93 eta % 99 bitartean, eta kasu baxuenean ere %80koa da. Aiestaranek ikertu ditu hurrengo tokiko aldizkariak: *Aikor!* Txorierrikoa, *...eta kitto!* Eibarkoa, *Barren* Elgoibarkoa, *Aldaize* Idiazabalgoa eta *Karkara* Orio eta Aiakoa. Azterlana gauzatzeko ikertzaileak hartu du oinarri Aztikerrek 2008 eta 2009 bitartean bost tokiko aldizkari horiekien egindako ikerketa.

ren hedabideak pluralak dira (Aztikerren inkestaturen % 71,9k dio Debagoienekoa dela proiektu plurala eta independentea indar politiko edo ekonomikoekiko).

• **Jakin izan dute osatzen inguruan enpresa-sare estrategikoa.** Taldeak erakutsi du gai izan dela negozioaren dibertsifikazioari ekiteko eta sortzeko inguruan bere jardunerako estrategikoak diren negozio-unitate berriak. Hartara, Goiena Komunikazio Taldearen bueltan sortu dira Batu-Banatu banaketa-enpresa eta Artaman Komunikazioa publizitate-agentzia; gainera, partaidetza du Batura Mobil Solutions telefonoetarako aplikazioak egiten dituen enpresan.

## 5. Ikerketaren mugak

Ikerlan honek dituen mugei erreparatuta, aipagarria da, egutegi-kontuak direla medio, udalez gaindiko administrazio publikoetako partaideek (alegia, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak) ez dutela esku hartu eztabaida-taldean. Horrenbestez, aukera galdu da erakunde horien ikuspuntutik hitz egiteko Debagoieneko komunikazio-taldearen ezaugarriez, eta baita Jaurlaritzak eta Aldundiek tokiko komunikabideen sustapenean duten eginkizunaz ere.

## 6. Aurrera begirakoak

Aurrera begira, azkenik, badira zenbait ikerlerro posible ikerlan honen segida izan daitezkeenak. Hutsune bereziki nabarmena ikusten da Debagoieneko hedabideek zabaltzen dituzten edukien gaineko azterketari dagokionez<sup>9</sup>: edukien analisiak, erabilitako kazeta-generoak, gaien aukeraketari buruzkoak, hizkuntzaren erabilera, genero-ikuspegitik fokuratutako azterlanak...

Beste alde batetik, ikerketarako ageriko beste bide bat da jorratzea Goiena Komunikazio Taldearen eta Mondragon Unibertsitatearen elkarlanaren nondik norakoa<sup>10</sup>.

Bukatzeko, beste ikerlerro posible bat izan daiteke aztertzea Goiena Komunikazio Taldearen hedabideek izan duten eragina Debagoieneko euskararen normalizazio-prozesuan. Alegia, egitea Debagoienean eta aro digital eta multimedien Camachok (2002a) bere doktorego-tesian EAEn egindako ikerketaren parekoa.

## Bibliografia

- AED (ed.) (1991): *Prensa lokalari buruzko I. ihardunaldiak*, AED, Arrasate.
- Agirreazaldegi, A. (1993): "Euskarazko herri aldizkari bat zure herrian", in ARKO (ed.), (1993): *Herri komunikabideei buruzko II. jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 5-14.
- Aiestaran, A. (2004): "Euskarazko prentsa elkarlanerako estrategien bila", *Uztaro*, **49**, 45-57. Hemendik jasoa: <<http://bit.ly/wqesfm>>.

---

9. Tankera horretako lana burutu zuen Aiestaranek (2007) bere doktorego-tesian.

10. Bi erakunde horiek bitariko batzordea osatu zuten 2011ko urrian proiektu hori lantzeko. Euskara, komunikazioa eta berrikuntza dira egitasmo horren osagai nagusiak. Asmoa da, ikasleek egin eta Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateak tutorizatutako komunikazio-proiektu berritzaileak gauzatzea urtero, horretarako propio diseinaturiko laborategian.



- , (2007): *Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema: tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean (eta Kitto, Pil-pilean, Barren, Berriketan, Kalaputxi eta Drogetenituri)* [doktorego-tesia], EHU/UPV, Bilbo [hemendik jasoa: <http://bit.ly/AauKCO>].
- , (2009): “Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisia”, *Uztaro*, **69**, 71-111 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/wSpy07>].
- , (2010): “Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai”, *Uztaro*, **74**, 59-72 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/zSgbvE>].
- , (2011): “Euskarazko tokian tokiko prentsaren eduki analisi konparatiboa: Debabarreneko azterketa”, *Zer*, **31**, 203-223 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/xcBMYT>].
- Arana, E.; Azpillaga, P. eta Narbaiza, B. (2003a): “Tokian tokiko telebistagintzaren programazioa, ordainsariak eta erronkak”, *Uztaro*, **46**, 61-80 [Hemendik jasoa: <http://bit.ly/y34QT8>].
- , ————— eta —————, (2003b): “Telebista lokalen panorama Euskal Herrian”, *Zer*, **15**, 81-98 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/ydvgVr>].
- , ————— eta —————, (2004): “Telebista lokalak Euskal Herrian”, *Jakin*, **141**, 11-52 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/AwYJpBf>].
- , ————— eta —————, (2005a): *Normalización lingüística y televisión de proximidad en el País Vasco* [hemendik jasoa: <http://bit.ly/y6mOJF>].
- , ————— eta —————, (2005b): “Tokian tokiko telebistak, geroari begira”, in M. Arrieta; J.I. Basterretxea; M. Gonzalez *et al.* (ed.), *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, EHU/UPV, Bilbo, 247-256 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/xqXcnF>].
- , ————— eta —————, (2006): *Mercator Media Monographs 2: The Basque Mass Media* [hemendik jasoa: <http://bit.ly/xASvGf>].
- Arana, E., Amezaga, J., Azpillaga, P. (2010): *Euskarazko hedabideak*, UPV/EHU, Bilbo [hemendik jasoa: <http://bit.ly/ApGjQg>].
- Arana, G. (1998): “Diseinuan ere kalitatea”, in ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko III. jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 15-25 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/MvF9wR>].
- , (2004): “Small, but powerful!”, *Design Journal*, **90**, 23-25, SND, North Kingstown.
- , (2008a): *Goienkaria: Debagoieneko astekaria 2000-2007* [hemendik jasoa: <http://bit.ly/KDftKS>].
- , (2008b): *Goiena.net: Debagoieneko Internet ataria*, [hemendik jasoa: <http://bit.ly/JH1JPo>].
- Aranguren, A. (1993): “Ipini ezazu telebista bat zure herrian (Gida praktikoa)”, in ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko II. jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 37-75.
- , (1999): *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian* [doktorego-tesia], EHU/UPV, Bilbo [hemendik jasoa: <http://bit.ly/w3QXt5>].
- Arantzabal, I. (2005): “Kazetari multimediarren bidea”, *Mediatika*, **11**, 265-269 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/zxobli>].
- Aranzabal, J. (1990): “Euskal komunikabideak Arrasaten”, *Jazten*, **3**, 13-17 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/x9CX6x>].
- , (1991): “Herri aldizkari baten tajuketa”, in AED (ed.), *Prentsa lokalari buruzko I. ihardunaldiak*, AED, Arrasate, 1-7.
- , (1992): “Herri-aldizkari baten taxuketa”, *Jakin*, **69**, 67-80 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/KOCEaJ>].
- , (2000): “Euskarazko herri prentsaren bilakaera”, in M. Irizar (2001), *Goiena esperientzia. Eskualdeko multimedia talde baten sorrera* [txostena], Goiena, Arrasate, 5-11 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/KXEmD4>].

- ARKO (ed.) (1993): *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate.
- , (ed.) (1998). *Herri komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate [hemendik jasoa: <http://bit.ly/U81mTw>].
- Arrieta, D. (2005): "Arrasate Press: 16 urte tokiko prentsaren aitzindarietan. Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua", in M. Arrieta; J. I. Basterretxea; M. Gonzalez *et al.* (ed.), *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, EHU/UPV, Bilbo, 155-161 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/xqXcnF>].
- Arrieta, M.; Basterretxea, J.I.; Gonzalez, M. *et al.* (ed.) (2005): *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, EHU/UPV, Bilbo [hemendik jasoa: <http://bit.ly/ySWhsG>].
- Arregi, I. (2003): "Goiena Komunikazio Zerbitzuak 2000-2003", in Topagunea (ed.), *Tokiko hedabideak etorkizunera begira. III. Jardunaldiak*, Topagunea, Abadiño, 139-151.
- Aztiker (2012): *Goiena Komunikabideak: irakurleak, asebetetzeak, ohiturak eta etorkizuneko joerak/jokaerak, 2012* [txosten argitaragabea].
- Callejo, J. (2001): *El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación*, Ariel, Bartzelona [hemendik jasoa: <http://bit.ly/xA0zLT>].
- Camacho, I. (2002a): *Herri aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)* [doktorego-tesia], EHU/UPV, Bilbo [hemendik jasoa: <http://bit.ly/xx8bQ4>].
- , (2002b): "Euskarazko herri aldizkariaren funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian", *Uztaro*, **43**, 67-85 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/wwwYNh>].
- , (2004): "Hurbileko informazioaren definizioa eta funtzioak. Euskarazko herri aldizkariaren azterketa", *Mediatika*, **11**, 199-216 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/wXEwKf>].
- Cormack, M. eta Hourigan, N. (ed.) (2007): *Minority Language Media. Concepts, Critiques and Case Studies*, Multilingual Matters, Clevedon (Ingalaterra).
- Elkoroberezibar, M. A. (1991): "Herriko prentsa", in AED (ed.), *Prentsa lokalari buruzko I. ihardunaldiak*, AED, Arrasate, 1-17.
- , (1992): "Prentsa lokala Euskal Herrian", *Jakin*, **69**, 11-29 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/zvV74Q>].
- , (1993): "Publizitatea euskarazko herri aldizkarietan", in ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 99-117.
- Goiena Komunikazio Zerbitzuak (1999): "Goiena egitasmoa: oinarrizko dokumentua", in M. Irizar (2001), *Goiena esperientzia. Eskualdeko multimedia talde baten sorrera* [txostena], Goiena, Arrasate, 17-21 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/KXEmD4>].
- Irigoién, J.M. (1992): "Prentsa lokala Euskal Herrian", *Jakin*, **69**, 103-113 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/NXmvyD>].
- , (1993): "Herri aldizkariaren ezarpena eta zabalpena: Arrasate Press, Berrigara eta Ttipi-ttapa", in ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 177-186.
- , (1993): "Arrasate Komunikabideak (ARKO) multimediarren esperientzia", in ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 131-135.
- Irizar, M. (2001): *Goiena esperientzia. Eskualdeko multimedia talde baten sorrera* [txostena], Goiena, Arrasate [hemendik jasoa: <http://bit.ly/KXEmD4>].
- , (2003): "Herri aldizkariak: balantzea eta etorkizuneko erronkak", *Bat*, **48**, 53-61 [hemendik jasoa: <http://scr.bi/LtgF4g>].
- Juaristi, P. (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*, EHU/UPV, Bilbo [hemendik jasoa: <http://bit.ly/NqkVaM>].
- Larrañaga, J. (2008): "Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko. Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Koop. E.-ren adibidea", *Uztaro*, **64**, 69-81 [hemendik jasoa: <http://bit.ly/wnpcdG>].

- Merlinsky, G. (2006): "La Entrevista como Forma de Conocimiento y como Texto Negociado: Notas para una pedagogía de la investigación", *Cinta Moebio*, **27**, 27-33 [hemendik jaso: <http://bit.ly/wZEqdl>].
- Mena, A. M. eta Méndez, J. M. (2009): "La técnica de grupo de discusión en la investigación cualitativa: aportaciones para el análisis de los procesos de interacción", *Revista Iberoamericana de Educación*, **3**, 1-7 [hemendik jaso: <http://bit.ly/xcJyZg>].
- Mendiguren, I. (1991): "Arrasate Press", in AED (ed.), *Prentsa lokalari buruzko I. ihardunaldiak*, AED, Arrasate, 1-7 [hemendik jaso: <http://bit.ly/x8mx7T>].
- , (1992): "Arrasate Press", *Jakin*, **69**, 92-102 [hemendik jaso: <http://bit.ly/yf4Xl7>].
- Rojas, J. (2011): "Euskarazko tokiko hedabideen balio dokumentalaz", in T. Agirreazaldegia eta I. Camacho, *Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan*, EHU/UPV, Bilbo, 261-266 [hemendik jaso: <http://bit.ly/x93xBJ>].
- Stake, R. F. (1999): *Investigacion con estudio de casos*, Morata Ediciones, Madril.
- Tojar, J. C. (2006): *Investigacion cualitativa: comprender y actuar*, Editorial La Muralla, Madril.
- Topagunea (ed.) (2003): *Tokiko hedabideak etorkizunera begira III. Jardunaldiak*, Topagunea, Abadiño.
- Villarreal, O. eta Landeta, J. (2010): "El estudio de casos como metodología de investigación científica en dirección y economía de la empresa. Una aplicación a la internacionalización", *Investigaciones Europeas de Dirección y Economía de la Empresa*, **3**, 31-52 [hemendik jaso: <http://bit.ly/wkUl2e>].
- Urzelai, A. (1993): "Arrasate Telebista", in ARKO (ed.), *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate, 77-83.

